



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu



ENPRESEN AHOLKULARITZA FOROA

2021eko apirilaren 29a

GAI-ZERRENDA:

1. Ongietorria ordezkariari eta bileraren helburua.
2. Aurreko akordio eta proiektuen birpasaketa.
3. Egiteke dauden proiektuak eta proiektu berriak.
4. Proposamenak aztertzeko talde-hausnarketa.
5. Proposamenen banakako hausnarketa eta puntuazioa.
6. Hurrengo urratsak: Kontraste-Mahai Politikoa (Maiatzak 17).

PARTE-HARTZAILEAK: (%72)

DEITUAK		BERTARATUAK	BERTARATU EZ DIRENAK	
			Justifikatuak	Justifikatu gabeak
Ostatuen ordezkaria	Javier Angulo	X		
Taxien ordezkaria	José Ignacio López (Maiterekin batera)	X		
Kirol aisialdiko ordezkaria	Héctor García			X
Interpretazio-zentroen, giden eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	X		
Merkataritzako ordezkariak				
Getxo Enpresa	Amaia Lauzirika	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Algortako Dendak	Amaia Amestoy, Amaia Sertutxaren ordez	X		
Ostalaritzako ordezkariak				
Bizkaia Ostalaritzako Elkartea	Hector Sanchez		X	
Asohge	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Morán			X
Getxo Enpresa	Desiré Yeste	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogea	X		
	Sonia Urdiain	X		



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

1.- Ongietorria ordezkariari eta bileraren helburua:

Deialdira bertaratu direnei ongiatorria eman zaie, Getxo Enpresak ostalaritza-sektorerako duen ordezkari berria (Desiree Yeste) aurkeztu da, eta bileraren helburua gogorarazi da:

- ✓ Aurreko akordio eta proiektuak berrikustea.
- ✓ Egiteke dauden proiektu eta proiektu berriak.
- ✓ Proposamenen talde-gogoeta.
- ✓ Lehentasuna: proposamenen banakako puntuazioa.
- ✓ Hurrengo urratsak: mahai Politikoa (maiatzak 17).

2.- Aurreko akordio eta proiektuen birpasaketa:

Aurreko bileretan landutako akordioen/proiektuen talde-errepasoa egiten da, baita horien aurrerapena ere, halakorik egotekotan, ondoren lehenesteko eta maiatzaren 17ko Kontraste Mahai Politikoari helarazteko.

a. ***“Getxo Bono 2021”:***

Bertaratutakoei jakinarazi zaie datorren asteartean, maiatzaren 4an, Tokiko Gobernu Batzarrak kanpaina kudeatzeko oinarriak onartuko dituela, eta, beraz, ekintzaren hurrengo urratsak teknikoki lantzen hasiko direla, orain arte sektoreko ordezkariak nabarmendu dituzten eskakizun garrantzitsu guztiak kontuan hartuta; hain zuzen ere, bonu fisikoen ehuneko txiki bat sortzea edota lizentzia bat baino gehiago duten establezimenduek (Ostalaritza eta Merkataritza) bat bakarrik aukeratu behar izatea. Halaber, proiektuaren kronograma osatzen duten aurreikusitako datak ezagutzera ematen dira.

(Xehetasun gehiago aurkezpenean).

Era berean, garrantzitsua da Euskadi Turismo Bonora atxikituta dauden establezimenduek edo etorkizuneko beste bonu-kanpaina batzuetan parte hartuko dutenek (BFA edo EJ) kudeaketa- eta kontrol-sistema bat ezartzea, barne-konplikazioak saihesteko.

b. ***“Taxien publizitate-proiekturako aholkularitza biderapena”:***

Gainerako sektoreei adierazi zaie proiektu horrek baduela hasierako-zirriborro bat, eta une honetan aholkularitza-taldeak bigarren berrikuspenaren fasean dagoela. Berrikuspen hori egin ostean, behin betiko proposamena Bizkai-Taxira bidaliko da, elkartean bertan adosteko. Hortik aurrera, Bizkai-taxik eskaera bat egingo du, proiektua garatzeko



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

baimena emateko, erregistroaren bidez eta Barne Araubideko Arloari zuzenduta.

Bestalde, sektore guztiei publizitate horretaz baliatzeko aukera ere ematen zaie; izan ere, Getxoko negozioentzat prezio baxuagoa izango du, eta proiektuak udalerriko ekonomia-sarerako zuzeneko eskumenak saihestuko ditu.

Bere dinamika ulertzeko, Taxi-mahaiko ordezkariak, José Ignacio Lópezek, azaldu du hainbat publizitate-euskarri dituela: ibilgailuaren barruan, publizitate digitala tablet motako gailu baten bidez eta iragarleen promozio-flyerrak zabaltzeko euskarria; kanpoan, berriz, banda imantatuaren bidez jarriko dira.

- c. ***“Taxien flota berritzeko laguntzak, Taxi egokituak, ibilgailu hibridoen (gaur egun 2 baino ez daude) eta/edo elektrikoak (0) kopurua handitzea, baita geldialdietan kargatzeko puntuak instalatzea ere (2022tik Aurrera)”***:

José Ignacio Lópezek, diru-laguntzaren kalkulua egiteko, ibilgailua berritzeko asmoa duten lizentzien kopurua aipatu du: 1 elektriko, 2 hibridoak eta egokitu 1. Aurreikuspen horrekin, proposamen bat egingo da teknikoki. Gainera, jakitera ematen da beste hiri batzuetako udalak ere trantsizio hori sustatzen ari direla; izan ere, Bilbon jadanik badute horretarako laguntza-lerro bat.

- d. ***“Planak sustatzeko bideoak sortu”***:

Enpresen Aholkularitza-Foruaren aurreko bileretan hitz egin zen bezala, pantailadun espazio bat duten establezimenduetan, eta hala nahi izanez gero, datorren astetik aurrera esteka bat bidaliko zaie teknikoki, udalerriko eskaintzari balioa ematen dieten bideo-sorta bat deskargatu ahal izan dezaten.

- e. ***“Negurin aparkaleku express-en bat sortu”***:

Merkataritzako azken mahaian egindako eskaera hori hirigintzara bidali da, azter dezan. Jasotako proposamena teknikoki berrikusten ari da, baina ideia nagusia honako hau da: Zonaldeko plaza batean edo bitan seinaleztapen bertikala eta horizontala jartzea, denbora jakin baterako bakarrik aparkatu ahal izateko. Denbora hori igarota, ibilgailuak aparkatuta jarraitzen badu, udal-agenteei jakinaraziko zaie, eta garabiaren bidez erretiratuko da.

- f. ***“Hurrengo saldoen merkatua egiteko dataren proposamena”***:



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Egungo bilera-datan, mezu elektronikoa bat bidali zaio Merkataritza Mahaiari, Saldoen Merkatuaren hurrengo data adosteko epea (maiatzaren 12a) gogorarazteko eta, horrela, ekintza kudeatzeko behar den denbora segurtatzeko. Azaltzen den bezala, egoera-epidemiologiko onena izanik (pandemiaren bilakaerak ahalbidetzen badu), merkatua kanpoan egin ahal izateko, bide publikoa okupatzeko baimena eskatu beharko litzateke, administrazio-epe jakin batzuk betetzea eskatzen duena. Ordea, egoera-epidemiologiko txarra izanez gero, merkatua establezimenduen barrualdean egingo da, aurreko edizioan bezala.

Algortako Dendak elkarteak iraileko lehen hamabostaldia proposatu zuen, eta Amaia Amestoy elkarteko ordezkariak irailaren 6ko astea lehenetsi du. Amaia Lauzirika GetxoEnpresako ordezkariak, bere aldetik, elkartekideei data horren berri eman zien, baina oraindik ez da barne-adostasunik lortu. Astean zehar horretarako konpromisoa hartzen du. Romo Bizirik ez du datarik proposatu.

g. “2021eko PLANEN eskaintza osoaren QR-rekin binilo bat edo antzekoren bat egitea, ostalaritza-establezimenduetan jartzeko”:

Adierazi da inprimaketak egin ahal izateko jakin behar dela gutxi gorabehera zenbat establezimenduk (Ostalaritza eta Merkataritza) izan nahi duten QR hori.

Gainera, argitzen da QRren edukia soilik Udalerrirako 2021eko Aisialdi-Planak sustatzeko izango dela, establezimenduek ekintza horretarako sortutako eskaintzetan eragin berezia izateko. Jorge Alonsok, Ashogeko ordezkariak, bere erabilgarritasuna maximizatzea proposatu du, udalerriko establezimendu guztiei buruzko informazioa sartuz, baina teknikariek azaldu dute funtzio hori Establezimenduen Bilatzaileari dagokiola, berritzez dagoena.

h. “Egungo plaza hutsetarako ordezkariak proposatu”:

Zonalde batzuetako Ostalaritzako ordezkariak izendatzea egiteke dagoela gogorarazten da:

- ✓ Portu Zaharra-Ereaga-Kirol Portuko tabernak.
- ✓ Erromoko jatetxeak.
- ✓ Erromoko tabernak; Baieztatuta – (Per, La Mona).
- ✓ Areetako jatetxeak; Baieztatuta – (María, La Kazuela)

i. “Gobernu Taldeari jakinaraztea 2021eko ezohiko laguntzak Getxoko itxitura perimetralera mugatzeak, ostatuaren, giden eta bidai-agentzien esparruan, ez duela bere errealitatea aintzat hartzen; egoera berriak kontuan hartzeko beharra - Kontsumo-murrizketak ostalaritza-establezimenduen barrualdean”:



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Mahai gehienek eskaera berrizkatu badute ere, egungo bilera egunean, Gobernu Taldeak adierazi duenez, laguntza berrien espirtua – Kontrastearen Mahai Politikoan planteatu zuten bezala – Udal-esparrutik beste erakunde batzuek (BFA/EJ) deitzeke eta dagoeneko deitu diren laguntzak osatzea da, eta, beraz, ez dutela aurreikusten proposatutako egoera berriak aintzat hartzea.

Sektoreko ordezkariak azpimarratu dute ez direla egungo errealitatera eta sektoreen beharretara egokitzen. Horregatik, proposamen hori maiatzaren 17ko Kontraste Mahai Politikoan berriz planteatzea iradokitzen da; eta guztiek interes handia erakutsi dute hura defendatzeko, lehentasunezko zat jotzen baitute, sektore guztiei kalte egiten dielako. Horregatik, egungo bileran lehenetsi beharreko proposamen gisa sartuta ez dagoen arren, bertaratutakoek aho batez erabaki dute puntu 1 ematea.

- j. ***“Getxolani honako jarduera hauen garapenean parte hartzeko borondatea jakinaraztea: gaualdiak hartzeko kanpainaren diseinua bi ildotan, inguruko enpresak eta banakakoak; Turismo-sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuak sustatzeko estrategiari ekitea - MICE Bilbo Handiko enpresetara; eta turismo-sektorearekin batera taldeak erakartzeko dinamizazio-kanpaina”:***

Alde batetik, azpimarratu da diru-hornidura duen ekimen honen helburua dela jarduketan sorta hori lantzea turismoa irekitzeko, etorkizunean berreskuratzeko estrategia gisa; eta, bestetik, gogorarazi da atxikitzeko epea martxoaren 21ean amaitu zela. Egungo bilera egunean, Interpretazio Zentroen, Giden eta Bidaia Agentzien sektoreko 3 pertsonak eman dute izena; haiekin lanean hasi da, eta eragindako sektoreetako ordezkariekin alderatuko dira aurrerapenak.

- k. ***“Tokian tokiko kontsumoa sentsibilizatzeko eta sustatzeko kanpaina”.***

Komunikazio enpresa arduradunak, "Ros y etcetera", euskarri grafikoak aurkeztu ditu, "Garrantzitsuena eskura dago" leloa eta hainbat mezu barne, tokian tokiko kontsumoa sustatzearekin zuzenean lotutako zenbait balio jakinarazteko helburuarekin (Ikusi euskarriak diapositiban). "Bere etorkizuna eraikitzen duzu" mezuak eztabaida sortzen du ordezkarien artean "BERE" hori dela eta; izan ere, badirudi merkatarien etorkizunari egiten diola erreferentzia, eta ez udalerrri osoari. Beraz, ezabatzea balioesten da.

Halaber, argitu da marketing kontuengatik "Getxon **kontsumituz**"-en ordez, "Getxon **erosiz**" jarri dela; **kontsumitzea** zuzenean lotuta dagoelako zerbitzuekin edota ostalaritzarekin, eta **eroste**a, berriz, askotariko zerbitzuak eskuratzearekin.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Bestalde, kanpaina zabaltzeko erabiliko diren bitartekoen zirriborroa eta kronograma erakusten dira (ikusi xehetasunak diapositiban). Gainera, hedabide digitaletan egin nahi den apustu handia nabarmentzen da; horretarako, "Erosketa Programatikoa" izeneko metodologia espezializatu bat erabiliko da: entzunaldiak erosi nahi diren profilen barruan, publizitatea erabiltzaile horiek (finkatutako ezaugarriak betetzen dituztenek) maiz erabiltzen dituzten orrietan ager dadin. Horretaz aparte, astelehenean promozio bideo bat grabatuko dute Getxoko sektore guztietako erakusleihoeekin.

Kanpainaren abiaraztearen berri emango da, datorren astean izatea aurreikusten da, eta sektoreei banakako erabilerarako euskarri grafikoak bidaliko zaizkie.

Kanpainarako aurrekontuan sartutako zenbatekoa, guztira, 80.000 eurokoa izango da.

3.- Egiteke dauden proiektuak eta proiektu berriak:

Alde batetik, gogorarazten da egiteke dauden zenbait proposamen ez zirela lehenetsi otsaileko Enpresen Aholkularitza Foruko saioan edota ez zutela aparteko aurrekontu-zuzkidurarik izan (Ikusi xehetasun gehiago diapositiban). Horiek berrikusi eta balioetsi izan da helburua, eta, hala badagokio, horietan berriro lan egitea, hurrengo Kontraste Mahai Politikoari begira; horretarako, gainerako proiektu berriein batera lehenetsi beharko dira berriro.

Era berean, martxoko azken mahai sektorialetan proposatutako proiektu berriak aipatzen dira:

➤ ***Batuz-sistema betetzeko beharrezko ekipamendu teknologikoa erosteko laguntza-lerro berria:***

Sistema 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera nahitaez ezarri behar dela errepikatu da, beraz, laguntza-ildo berri hau planteatzen da berriro, mahai guztiek askotan eskatu duten proposamena. Era berean, Sustapen Ekonomikotik gogorazi nahi izan dugu udala ematen ari den informazio-saioak abian daudela, eta saio espezializatuak sortzeko aukera ere badagoela, sektorekako taldeen edo elkarten arabera antolatutak. Bestalde, elkarte- eta sektore-mailan sistemaren berri ematea eskatzen da, eta interesa izanez gero, teknikariei jakinaraztea, saioak antolatu dezaten. Oso garrantzitsua da establezimenduentzat funtzionamenduaren xehetasunak ezagutzea, zehapen-araubidearen zakartasuna dela eta.

Javier Angulo ostatu-mahaiko ordezkariak dio oraindik ez duela aurkitu bere sektorerako software homologatu espezifikorik, eta teknikoki ikertuko da.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

➤ **Sektoreen arteko cross-sellinga sustatzeko proposamena; batzuk besteen preskriptore bihurtuz:**

Kirol Aisialdia- eta Merkataritza-Mahaitik ateratako proposamen hau abian da, eta udalerriko eskaintzaren (aisialdikoa, merkataritzakoa, ostalaritzakoa, etab.) sektoreen arteko ezagutza bultzatuko duten jarduerak antolatzean datza, eskaintzaren preskriptore izateko eta bezeroen artean zabaltzeko. Ekainerako esperientziaren bat egin ahal izatea espero da; urteko azken lauhilekoan jarraipena izan lezakeena.

➤ **Terrazren ordenantza aldatzeko proposamena:**

Ostalaritzako ordezkarietatik aipatzen da ordenantzaren beraren edukia kontraesanean dagoela, eta, ondorioz, prozedura eta tramitazioak ulertzea izugarri zailtzen du. Jasotako beste inkongruentzia bat, oraingoan merkataritza-sektorearena, hauxe da: terrazaren baimena urtero sinatu behar izatea auzoko ostalariari, egoerak (jabeak, terrazaren tamaina, etab.) inolako aldaketarik izan ez badu ere.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da ordenantza bera eta tramitazioa sinplifikatuko duten aldaketak egitea.

➤ **Establezimendu- bilatzailea hobetzea (diseinua, erabilgarritasuna, iragazkiak):**

Enpresei kalitatezko ikusgarritasuna emateko, beharrezkotzat jotzen da bilatzaile hori berriz diseinatzea, negozio bakoitzaren alde kualitatiboak dagokienez itxura bisualagoa, komertzialagoa eta zehatzagoa emanez. Nolanahi ere, teknikoki pentsatu da lehen pilotajea ostalaritza-mahaiarekin batera egingo dela, gaur egun sektoreak dituen zailtasun handiengatik, eta, horretarako, bere eskaintza osatzen duten zerbitzu/produktu/espazio guztiak biltzen hasiko da.

➤ **GetxON marka eguneratzea eta berrabiaraztea:**

Azken Merkataritza-Mahaian GetxON marka eguneratzea eta erreskatatzea proposatzen zen, bere unea izan zuela onartzen baitzen, baina jada ez zela asko erabiltzen eta zaharkituta dagoela. Lehen, merkataritza arloarekin zuzenean lotuta zegoen, baina agian gainerako sektoreetara ere zabandu daiteke, irudi berritu eta landu batekin.

4.- Proposamenak aztertzeko talde-hausnarketa.

Proposamen guztiak aztertu eta taldeka komentatu ondoren, honako galdera hauek bota dira, bai ikuspegi orokor bat emateko, bai proposamen horiei lehentasuna emateari begira:



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

- Proiektuak eragin positiboa du sektore batean edo batzuetan?
- Proiektuak eragin positiboa du udalerrri osoan?
- Tokiko zenbat enpresa izan daitezke proiektuaren onuradun?
- Jasangarria da?

5.- Proposamenen banakako hausnarketa eta puntuazioa.

Ikusitako proposamenak banaka puntuatzeko, puntuazio-metodologia azaldu da: proposamen bakoitza 1etik 3ra puntuatu behar da, 1 balio handienekoa eta 3 puntu txikienekoa izanez.

Aurreko saioetan lehenetsi gabeko proposamenen bat zuzenean baztertu nahi izanez gero, 0 puntuazioaren bidez puntuatzea adierazi zaie bertaratutakoei.

Horrela, ordezkariak banaka puntuatu dute proposamen bakoitza.

Ondoren, teknikariei eman zaizkie, lehenetsitako proposamenen zerrenda itzuli diezaieten, bere puntuazioak kontuan hartuta eta, betiere, modu anonimoz.
(I. ERANZKINA)

6.- Hurrengo urratsak: Kontraste-Mahai Politikoa (Maiatzak 17).

Sektoreko ordezkariak gogorarazi zaie Kontraste Mahai Politikoaren bilera maiatzaren 17an, astelehenean, izango dela, 14: 30etik 16: 30era.

Sektoreko ordezkariak eurek hitza hartzea, beren egoera azaltzea eta lehenetsitako proposamenak defendatzearen garrantzia nabarmendu da hurrengo mahaiko talde politikoen aurrean. Defentsa hori errazteko eta azken mahai politikoa bezala sektoreek hitz egiteko lekuri ez izatea ekiditeko, hitza hartzeko muga bat ezartzea eta bertaratutakoei bilerako gai-zerrenda bat bidaltzea erabaki da, bakoitzak bere azalpena presta dezan. Beharrezkoa bada, defentsarako laguntza tekniko emango da.

Beste edozein gairako, Enpresen Aholkularitza Foruaren helbide elektronikoa ematen da: enpresenaholkuforoa@getxo.eus.

ENPRESEN AHOLKULARITZA FORUAREN ERABAKIAK (2021-04-29):

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1.- Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal- Teknikariak	Bileratik aurrera
2.- Getxo Ekinez 2021 Plana bidaltzea	Udal- Teknikariak	Bileratik aurrera



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

I.ERANZKINA: LEHENESTSITAKO PROPOSAMENEN ZERRENDA.

	REF. PUNTUAZIOA: 1 - 3	BATEZ BESTEKO BALORAZIOA
	1.-Gehieneko lehentasuna 2.-Lehentasun ertainekoa 3.-Lehentasun txikia	
FORU 04/29	2021eko aparteko laguntzak; ostatuaren, giden eta bidaiaria-agentzien eremurako laguntza zabaltzea - Estatuan eta nazioartean mugikortasuna dagoen unera arte, hurrenez hurren -; gertatzen ari diren egoera berriak kontuan hartzea - Ostalaritzako lokalen barruko kontsumo-murrizketak	1,0
FORU 04/29	Batuz-sistema betetzeko beharrezko ekipamendu teknologikoa erosteko laguntza-lerro berria.	1,3
FORU 04/29	Terrazaren ordenantza aldatzeko proposamena.	1,6
FORU 02/02	Terrazak baimentzeko administrazio-prozedurak berrikustea (aldaketak egin badira ere, ostalaritzak ez du hobekuntza handirik hautematen prozeduran; arintasun handiagoa eta izapideak sinplifikatzea eskatzen da).	1,6
FORU 02/02	TAO hobaria emateko aukera erosketen bidez; kudeaketa-ereduaren azterketa eta proposamena. Aurrekontuak eta ondorengo azterketa egiteke daude.	1,7
FORU 04/29	Establezimendu- bilatzailea hobetzea (diseinua, erabilgarritasuna, iragazkiak).	1,8
FORU 02/02	Udalerriko beste leku batzuetan (San Nikolas, Santa Eugenia,...) dauden aparkalekuen kudeaketa eraginkorragoa egitea.	1,9
FORU 04/29	Sektoreen arteko cross-sellinga sustatzeko proposamena; batzuk besteen preskriptore bihurtuz.	1,9
FORU 02/02	Mugikortasun iraunkorra (Getxobizi saskiekin + GetxoBus + Garraio publikoaren erabilerari hobaria eman)	2,0
FORU 04/29	GetxON marka eguneratzea eta berrabiaraztea	2,2
FORU 02/02	Taxien flota berritzeko laguntza posibleak baloratzea (2022tik aurrera), Taxi egokituak, ibilgailu hibridoak (gaur egun 2 baino ez daude) edota elektrikoak (0) kopurua handitzea, baita geldialdietan kargatzeko puntuak instalatzea ere	2,3
FORU 02/02	Aisialdirako eremu natural bat sustatzea, tokiz gaindikoa (Erandio-Leioa, Berango, Getxo)	2,5